



## **BEZEROAREKIKO HARREMANAK**

Gure proiektuaren xedea komunitate egonkorra eta harreman osasuntsuak garatzea izango da. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu bezeroekiko harremanak estuak eta konfidantzazkoak izatea. Zentzu horretan kontuan izango ditugu jarraikortasunez gure proiektuari ekarpena egiten dioten bezeroak, eta hauekin harreman pertsonalizatuagoa izango dugu: beherapenak, bezeroen interesezko gaiak hautatzea... Hau guztia hartzaileei aurrez aurre adieraziko zaie, modu honetan elkarlana eta **komunitate** sentimendua hedatuko da. Horrez gain, bezeroen egonkortasuna bermatzeko gure aldizkarian harpide izateko aukera izango dute. Modu honetan aurrez aurre izan gabe ere, proiektuaren jarraipena egiteko aukera izango dute.

Era berean, bezero berriekiko **arreta eta laguntza pertsonalizatua** emango da. Batetik, aurrez aurreko harremana izateko aukera eskainiko dugulako hezigunean bertan. Bestetik, telefono zenbaki baten bidez haien zalantzak argitzeko aukera eskainiko diegu.

Haatik, webgunea eta sare sozial desberdinen bitartez **zerbitzu automatizatua** eskainiko diegu. Bertan hitzaldi edo tailerretako sarrerak hartzeko aukera izango dute. Halaber, egonaldirako eta jardueretarako txandak eskatu ahalko dituzte. Azkenik, hitzaldi eta tailer batzuk *streaming* bidez eskainiko ditugu, aurrez aurre egoteko aukera ez dutenentzako. Modu honetan urrutiagoko bezeroak lortuko ditugu.